

Danimarkatik Euskal Herrira, MUtelebistaz galdezka

2011/09/27

VIA Unibertsitatea **Danimarkako hirugarrena** da tamainan, **17.000 ikasle** ditu **20 zentrotan** banatuta. Irailaren 26an HUHEZIn izan ziren handik etorritako profesional biak bilera egiten MUtelebistako arduradunekin, galdera asko zituzten-eta zelako baliabideak erabiltzen diren unibertsitatearen Internet bidezko telebistan, bai materialak eta baita pertsonalak ere. Aldi berean, informazioa eskaini zuten eurek zelan kudeatzen duten komunikazioa.

Irailaren 27an, berriz, Arrasateko eta Oñatiko fakultateak bisitatu dituzte, eta elkarrizketatu dira bertako komunikazio arduradunekin. Hainbat gai jorratu dituzte: barne komunikazioa, kanpo komunikazioa eta kaptazioa.

Hirugarren egunean **Nana Hansen** bisitatuko dute, VIA Unibertsitateetik gurera etorritako Erasmus ikaslea.

Era honetako bisitak Erasmus Mobility egitasmoaren barruan egiten dira. Plan horrek irakasleen mugikortasuna eta informazio trukea bultzatu nahi ditu Europako unibertsitateen artean. Argazkian, ezkerretik eskuinera, Lars Kjaer Dideriksen, Txema Egaña eta Verner Becker.

